

PEIO ALCANTARILLAREN KASUAREN BERRIREKIERA – TORTURAREN BIKTIMA

Peio Alcantarilla 2004ko urriaren 3an atxilotu eta Madrilera erman zuten. Tres Cantos kuartelean lau egunez inkomunikatuta zegoelarik, Guardia Zibilek torturatu zuten. Bi aldiz salatu zuen gertatu zitzaiena, bata espainiar Esatatuko epaitegietan, eta bestea, frantziar Estatukoetan. Bere lekukotza Madrilgo 44. Instrukzio Epaitegiaren esku utzi zuten 2004ko abenduan, eta bi hilabete geroago artxibatu zuten, inolako diligentziarik ireki gabe eta Alcantarrila deklaratzera deitu gabe.

Perez de los Cobos Guardia Zibila izan zen bere torturatzailleetako bat. Torturatzen zuten bitartean ikusi zuen, eta urte batzk geroago telebistan ikusi zuen berrir, *procés* epaiketean hartu zuen presntziarengatik. Perez de los Cobosek Alcantarilla torturatu izana guztiz koherentea da, izan ere, atxiloketaren egunean zuen kargua dela medio, garai horretan Madrilén zuen destinoa, eta gainera, Frantzia eta Espainiaren arteko koordinazio eta lankidetzaren organoetan eginkizunak zituen.

Alcantarilla Espainiako eta Frantziako segurtasun indarrek elkarlanean egindako operazio baten ondorioz atxilotu zuten. Horren ostean jasan zituen torturen eta horien salaketen artxiboaren ondorioz, GEBehatokiarekin elkarlanean kasua berrirekitzeko iniziatiba bat tarteratu du.